

Ugenatarrak, pistako erregeak

Alex eta Iñigo Ugena Ermuko atletismo harrobiko harribitxietariko bi dira. Maila altua dauka kirol honek herrian eta eurak dira horren erakusle bi. Espainia mailan lehiatzen dira eta baita emaitza onak lortu ere.

Alex da anaia nagusia. 17 urte ditu eta hezi-lasterketetan aritzen da. Lehen mailan zegoenean atletismoan entrenatzen zenbiltzan gazte batzuk ikusi zituen aitarekin eskolatik irteten ari zenean. “Nik hori egin nahi dut”, esan zion aitari. Esan eta egin. Aukera izan zuenean atletismoan izena eman zuen.

Iñigok 14 urte dauzka eta anaia nagusia entrenatu eta lehiatzen ikusi zuen urteetan. Berari ere atletismoarekiko grina sartzeko nahikoa. Pertikan aritzen da Iñigo eta Sabadellen jokatu den Espainiako Txapelketan bigarren geratu da berriki. “Hasieran denetarik egiten nuen, baina Alexi komentatu nion pertika egitea gustatuko litzaidakeela eta berak entrenatzaileari esan zion”, dio Iñigok. Ordutik

jauzika dabil.

Alexek ere atletismoko beste proba batzuk egin ditu, baina belauna birritan hautsi ostean hezi-lasterketan zentratu da guztiz. “Gainera, heltzen da momentu bat proba bat aukeratu behar duzuna, izan ere, batean edo bestean aritzeko modu zehatz batean entrenatu behar duzu, muskulu batzuk garatu...”, azaltzen du Alexek.

Aire zabaleko denboraldia hasi berri dute eta aurrean dituzten helburuak betetzeko dihardute buru-belarri lanean. Orain arte pista estalian lehiatu dira, baina biak gusturago aritzen dira kanpoan. “Aire zabaleko lasterketak benetakoak direla esaten da”, dio Alexek.

Lehiatzeaz gain, hala ere, atletismoan beste zerbaitengandik ari dira anai biak.



“Txapelketen barruan kirolarien arteko giroa zoragarria da, konpetentzia guztiz sana”, Alexen iritziz. “Gure artean gomendioak ematen dizkiogu elkarri eta benetan pozten gara beste batak irabazten badu”, aitortzen du Iñigok. “Aurkariak ez dira gure etsaiak, gure maila hobetzen laguntzen dizkiguten kirolariak baino, lehiatzeak motibatu egiten

gaituelako”.

Gazteak dira, baina bidea egin dute atletismo munduan. “Lolo eta Antonio (entrenatzaileak) oso onak dira eta Ermuan zorte handia daukagu eurak gurekin egoteagatik”, aitortzen du Alexek. Euren markatzen die bidea Ugenatarrei, eta Alex eta Iñigok ederki betetzen dute hau.

Ekhi Velar

Peio Goikoetxea, aurrenengo

“Peio txapeldun” irakurri genuen orain gutxi plazako oholtzari lotutako kartel handi batean. Caparrosen irabazi berri zuen lasterketa txalotzea zen haren asmoa: Euskaldun Torneoan, 23 urte-

tik 25era bitarteko hainbat txirrindulariekin lehiatzen, txapela janztea ez da lorpen makala, lagunok! Eta plazako kartela ia-ia kentzeke, bigarrena etorri da: lau etapa irauten duen Volta a Lleidan erlojupekoa eta etapetako bat eskuratu ditu ermuarrak. burua ilusioz beteta, eta hankak eta pedalak erronkaz gainezka ditu aspalditik. Bejondeiola!



ILEAPAINDEGIA
Iraskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

T **XALAPARTA**
ABERNA
 Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!
Erdikokale 13
(Ermua)
ENKARGYAK
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Enter
INFORMÁTICA
 SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
 VI Centenario 19, behea
 Tel. 943 17 90 37
 e-maila: enter-i@arrakis.es